



Imprimir

NP Klis-Klasikoak.doc (429 KB)




Departamento de Cultura del Gobierno Vasco

Síguelos

Klis-klasikoak

viernes, 25 noviembre 2011, 12:23



Sign Up to see what your friends like.

KULTURA SAILA DEPARTAMENTO DE CULTURA

2011-11-25

Eusko Jaurlaritzak eta Galtzagorri elkarteak *Klis-Klasikoak* liburu-bilduma aurkeztu dute**Klis-Klasikoak izeneko liburu-bilduma aurkeztu dute Bego Muruaga Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Euskara Sustatzeko Zuzendariak, Aitziber Alonso Galtzagorri euskal Haur eta Gazte Literatura elkarteko lehendakariak eta Ibon Egaña bilduma honen atzean dagoen batzordearen kideak gaur goizean, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean.**

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren laguntzarekin Galtzagorri elkarteak bideratzen duen liburu-bilduma da *Klis-Klasikoak*. Bilduma honek euskarazko haur eta gazte literaturan sumatzen zen gabezi handi bati erantzuten dio, eta bere helburu nagusia haurrentzako eta gazteentzako euskarazko liburu onak, kalitatezkoak egitea da, historian zehar ezinbestekoak bihurtu direnak gurera ekarri eta modu egokian plazaratzea.

Euskarazko eta haur eta gazte literaturako liburu klasikoak berrargitaratzeaz gain, literatura unibertsalean klasikoak diren eta euskaraz oraindik modu duinean ez ditugun liburuak kaleratu nahi dira. Izan ere, euskarazko irakurtzeko zaletasuna sustatzeko ezinbestekoa da euskarazko kalitatezko liburuak eskaintzea.

Horren haritik, gaurko honetan honako liburu hauek aurkeztu dira: *Txan Fantasma*, *Maria Goikoak batbiruburu*, *Indiana* eta *Pinotxoren abenturak*. *Txan Fantasma* Elkar argitaletxeak kaleratu du; beste hirurak, berriz, Igela, Alberdania eta Ereinek elkarlanean. Liburu horietan hainbat egilek, idazlek, itzultzailek eta ilustratzailek hartu dute parte: Mariasun Landa, Jokin Mitxelena, Gregorio Muro, Anjel Lertxundi, Koldo Biguri, Garazi Goikoetxea, Antton Olariaga, Jon Zabaleta eta Francisco Fructuosok, besteak beste.

Liburu hauen hautaketa eta prestaketa lanetan Haur eta Gazte Literaturako profesional ezberdinek osatzen duten batzorde bat aritu da. Asun Agiriano bibliotekariak, Ibon Egaña literatur kritikari eta unibertsitateko irakasleak, Dani Maiz ilustratzaileak, Inazio Mujika argitaldariak, Itziar Zubizarreta idazle eta irakurzaletasuna sustatzen adituak eta Patxi Zubizarreta idazleak hartu dute parte hain zuen ere aipatu batzordean.

Liburu guztien diseinu-zuzendaritza, berriz, Antton Olariaga eta Elena Odriozolaren esku geratu da. Eta lan honetarako Concetta Probanza ilustratzailearen kolaborazioa ere izan dute. Liburu guztien zuzenketa lanak berriz, Mitxel Muruak gauzatu ditu.

Bego Muruaga Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendariak aditzera eman duenez, "2011 urte honetan bi egitasmo burutuko ditugu bi erakundeen artean, Eusko Jaurlaritzaren eta Galtzagorriren artean. Lehenengoak 0-6 urte arteko haurrengan irakurketa ohiturak bultzatzeko helburua zuen, eta *Bularretik Mintzora* izeneko kanpaina da. Gaur aurkezten ari den *Klis-Klasikoak* izenekoak da bigarrena, eta kasu honetan, haur eta gazteei euskarazko kalitatezko liburuak eskaintzea du helburu. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak ere bere laguntza eman nahi izan du, eta guztira ia 100.000 euro jarri du aurten bi proiektu horiek gauzatzeko".

Izan ere, haur eta gazteek nazioarte-mailako hainbat autore klasiko ezagutzeko, beste hizkuntzetara jo behar izaten dute. "Haur eta gazte-literaturan mundu-mailan ezinbestekoak diren lanak falta zaizkigu, hortaz, euskaraz; hain zuzen, hori ekiditeko, gaur aurkezten ari garen bilduma sortu da. Haur eta gazteen adin-tarte guztiak hartzen dituen bilduma: 4-8, 9-12 eta 12-16 urte arteko gazteei begira antolatutakoa", azpimarratu du Bego Muruagak.

Gaurkoan lau liburu hauek aurkeztu dira, baina datozen urteotarako proiektu honek jarraipena izango duela aitortu dute bi erakundeek eta, hala, 2012. urtean ere liburu gehiagok argia ikusiko dute. Klis-Klasikoak bilduma honekin Galtzagorri eta Eusko Jaurlaritzak bat egiten dute honako bi helburu hauetan: bata, euskarazko haur eta gazte literatura sustatzea, eta bestea, euskarazko irakurzaletasuna piztea haur eta gazteen artean.

25-11-2011

El Gobierno Vasco y la asociación Galtzagorri han presentado la colección de libros *Klis-Klasikoak***La directora de Promoción del Euskera del Gobierno Vasco, Bego Muruaga, la presidenta de la asociación vasca de Literatura Infantil y Juvenil Galtzagorri,**

Aitziber Alonso, y el miembro de la comisión responsable de esta colección, Ibon Egaña, han presentado esta mañana la colección de libros *Klis-Klasikoak* en el centro cultural Koldo Mitxelena de Donostia.

Con el apoyo de la Dirección de Promoción del Euskera de la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco, la asociación Galtzagorri coordina y gestiona la colección de libros *Klis-Klasikoak*. Este programa responde a un vacío existente en la literatura infantil y juvenil en euskera, y su objetivo prioritario es publicar libros de calidad en euskera, libros de calidad que han perdurado en la historia y que se han rescatado para sacarlos a la luz de una manera adecuada.

Se pretende reeditar publicaciones infantiles y juveniles clásicas en euskera, y editar libros clásicos de la literatura universal que todavía no han visto la luz de una manera digna en euskera. De hecho, para fomentar la lectura en euskera es imprescindible disponer de una oferta de calidad de libros en euskera.

En ese sentido, hoy se han presentado los libros que se relacionan a continuación: *Txan Fantasma*, *Maria Gokoak batbirulau*, *Indianoa* y *Pinotxoren abenturak*. *Txan Fantasma* lo ha editado Elkar y los otros tres, las editoriales Igela, Alberdania y Erein conjuntamente. En la confección de esos libros han colaborado también muchos autores, entre escritores, traductores e ilustradores: Mariasun Landa, Jokin Mitxelena, Gregorio Muro, Anjel Lertxundi, Koldo Biguri, Garazi Goikoetxea, Antton Olariaga, Jon Zabaleta y Francisco Fructuoso, entre otros.

Distintos profesionales de la literatura infantil y juvenil han participado en la comisión encargada de seleccionar y preparar los libros de esta colección. En concreto, la bibliotecaria Asun Agiriano, el crítico literario y profesor universitario Ibon Egaña, el ilustrador Dani Maiz, el editor Inazio Mujika, la escritora y experta en fomento de lectura Itziar Zubizarreta y el escritor Patxi Zubizarreta.

De la dirección del diseño de estos libros se han encargado, por su parte, Antton Olariaga y Elena Odriozola. Para esta labor, han contado también con la colaboración de la ilustradora Concetta Probanza. Los trabajos de corrección de los libros los ha realizado Mitxel Murua.

La directora de Promoción del Euskera el Gobierno Vasco, Bego Muruaga, ha indicado que "en este año 2011 los dos organismos, tanto el Gobierno Vasco como Galtzagorri, hemos elaborado dos planes. El primero de ellos tenía como finalidad fomentar el hábito de la lectura entre niños de 0-6 años, un proyecto denominado *Bularretik Mintzora*. La colección *Klis-Klasikoak*, que estamos presentando hoy, es el segundo plan y, en este caso, su finalidad es la de ofrecer a niños y jóvenes libros de calidad en euskera. Para ello, el Gobierno Vasco ha apoyado sendas iniciativas con una subvención para este año 2011 de casi 100.000 euros".

Para poder acceder y conocer a distintos autores clásicos, los niños y jóvenes tienen que hacerlo utilizando la ayuda de otros idiomas. "En la literatura infantil y juvenil en euskera carecemos de obras que son imprescindibles a nivel mundial, y es por eso que ha nacido esta colección que presentamos hoy. Esta colección, además, reúne a todas las edades: niños de entre 4-8 años, 9-12 años y jóvenes de entre 12-16 años", ha afirmado Bego Muruaga.

En la jornada de hoy se han presentado estos cuatro libros, pero los dos organismos han reconocido que este proyecto debe tener continuidad en los próximos años y, de esta forma, el próximo año 2012 se editarán nuevos ejemplares de esta colección. Con esta iniciativa la asociación Galtzagorri y el Gobierno Vasco unen sus esfuerzos, por un lado, para fomentar la literatura infantil y juvenil en euskera y, por otro, para promover el hábito de la lectura en euskera entre los más pequeños y jóvenes.

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

tef. XXX XXX XXX – Fax XXX XXX XXX – e-mail kultura@ej-gv.es

[Notas de prensa](#) > [Cultura](#) > [País Vasco](#)